

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0037	Tasen/zergen aplikazioaren kontrako helegiteak eta erreklamazioak
---	---------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Zergen edo tasen kitapenaren/ordainagiriaren, onura fiskalak ematearen edo ukatzearen eta errolda fiskalak onartzeko ekintzen aurkako berraztertze errekurtsioa edo bestelako erreklamazioen bat aurkezteko.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozeinek edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Eskaria eredu normalizatuan. (E007)
- Interesatutako pertsonaren edo ordezkariaren NAN edo IFK edo horiek ordezkatzan dituen beste nortasun agiri bat.
- Izapidea egiten edo sinatzen duen pertsona interesatua ez bada, ordezkaturako pertsonaren NAN aurkeztu beharko da.
- Helegitea oinarritzen duten arrazoiak egiaztatzen dituen beste edozein agiri.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Orduetgia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- diruzaintza@amorebieta.eus

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkairako Tributu Foru Araua](#)
- [Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskariko datuak eta dokumentazioa jaso, egiaztatu eta eskaneatu.
2. Dokumentazioa Errenta eta Diru-bilketa Sailera bidali, txosten teknikoa egin dezan.
3. Alkatetzaren ebazpena.
4. Interesatuari jakinarazi, hala denean dagokion tasaren kitapenarekin batera.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Errekurtsoa aurkezteko epea: hilabete bat, jakinarazpena jaso edo iragarkia BAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnean, errekurtsua ordainketarako borondatezko epealdian edo hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da.

Berraztertze errekurtsua aurkezteko ez da beharrezkoa izango eskatzen den kopurua aurretik ordaintzea; dena den, errekurtsua edo, hala denean, erreklamazioa, aurkezteak ez du geldituko, zehapenen gauzatzeari dagokionean izan ezik, kobratzeko administrazio ekintza, interesatuak errekurtsuarekin, hala denean, erreklamazioa, aurkezteko epearen barruan, aurkaratutako ekintza baliogabetzea eskatzen ez badu. Ondore horietarako, etete hori eskatzeko, ezinbestekoa izango da zerga zor osoa estaliko duen bermea aurkeztea. Balizko horretan eskatutako etetea emango da.